

ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA: SANDRA GARAYOA

ERAKUSKETA

AIETE KULTUR ETXEA

Irailak 14 – Abenduak 11

Ordutegia

Astelehenak eta jaiegunak itxita.

Asteartetik ostiralera: 16:00-20:30

Larunbata: 10:00-14:00 / 16:30-20:00

Igandea: 10:00-14:00

ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA

2012ko urrian Aiete Kultur Etxean Ilustratzailearen Txokoa ireki zenetik, bertatik igaro dira ilustratzaile klasiko eta berriak: Iban Barrenetxea, Eider Eibar, Elena Odriozola, Antton Olariaga, Maite Gurrutxaga, Aitziber Alonso, Jokin Mitxelena, Estibalitz Jalón, Jon Zabaleta, Belén Lucas, Leire Urbeltz, *Marrazioak* topaketetako artistak, Asun Balzola, Iñaki Martiarena *Mattin*, Ainara Azpiazu *Axpi*, Concetta Probanza, Unai Zoco, Begoña Durruty, Dani Maiz, Lorena Martínez, Idoia Beratarbide, Tomás Hernández Mendizábal, Iraia Okina, Dani Fano, Andrea Escargot, Iker Ayestaran, Yolanda Mosquera, Asier Iturralde, Miren Asiain Lora, Paul Caballero, *Irrimarra* bikotea (Irene Irureta eta Karmele Gorroño), Ana Ibañez, Ane Arzelus, Iñaki Landa eta Maite Rosende. Orain, Sandra Garayoaren txanda da.

SANDRA GARAYOA COTERA (DONOSTIA, 1993)

Sandra Garayoa Donostian jaio zen 1993an. 2015ean bukatu zuen Usandizaga Institutuan Diseinu Grafikoko Goi Mailako Zikloa. Ondoren, Bartzelonara joan zen eta Escola Massanan Ilustrazioan graduatu zen.

KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 151 E. kultura_komunikazioa@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Hainbat esparrutan egin du lan. Diskoetako azalak diseinatzen, kartelgintzan, baita animaziozko filmeak egiten ere. Egun, Haur eta Gazte Literaturan eta narraziogintzan murgilduta dago. Esparru honi dagokionez, hainbat lan ditu argitaratuak: Xabier Olasok idatzitako *Hanka, Moko eta Buztan* (Ikaselkar, 2021) liburuaren ilustrazio lanak egin zituen; 2020an Etxepare Saria irabazi zuen Itziar Otegiarekin batera sortutako *Lorerik Gorriena* (Pamiela, 2020) albumarekin; eta une honetan, Bang argitaletxearekin komiki proiektu bat burutzen ari da.

Berria egunkariko *Mantangorri* gehigarrian hilero bere ilustrazioekin kolaboratzeaz gain, zenbait fanzine eta aldizkarietan argitaratu ditu bere lanak. Euskal emakumezko ilustratzaileei buruz Katilék argitaratu zuen *Gogoratzen naizenetik marrazten dut* proiektuan ere parte hartu zuen 2021ean.

Bere lana erakusketa ugarian paratu du, nola bakarkakoak hala taldekakoak. Erakusketa kolektibo hauetan parte hartu du azken urteetan: *Leihoak zabalik*, Donostiako Okendo kultur etxean 2021ean; MAZOKA ilustratzaileen azokan, 2020an Montehermoso kulturunean; 2020an Balentziako Carmen Kulturunean egin zen *BABAKAMO Babalunga i Kamalongos* erakusketan. Bakarkakoen artean, Zumarragako Zelai Arizti Kultur Gunean 2021ean Katapulta Plataformak antolatu zuen *INVENTARIUM, catálogo de lo hallado por dentro* erakusketa paratu zuen. Bertan, bere ibilbidean burutu dituen hainbat lan pertsonal erakutsi zituen; 2019an Irungo Martindozenea gaztelekuan *Sustraiak* erakusketa paratu zuen, zeinetan erakutsi zituen izenburu bera daraman eta egileak autoeditatu zuen album ilustratu baten marrazkiak, non bere txikitako etxearen garapena kontatzen duen; 2019an Donostiako Posidonia Estudion *Otsailari, agur* erakusketa ere.

Sari eta aipamen ugari jaso ditu azken urteetan. Lehen aipatutako Etxepare Sariaz gain, 2022ko Boloniako Haur Liburuaren Azokan egin zen ilustratzaileen erakusketarako hautaketan finalista geratu zen; 2021eko *IBEROAMERICA ILUSTRA* izeneko katalogorako hautatua izan zen; urte berean, Kataluniako Ilustratzaileen Elkarte Profesionalak antolatzen dituen Junceda Sarietan autoedizioaren kategorian finalista suertatu zen, Colectivo Cincoren kide gisa. 2020ko IRUDIKA Euskadiko Nazioarteko Ilustrazio Topaketa Profesionaleko ohorezko aipamena jaso zuen Haur eta Gazte Literaturaren atalean; 2017an Ilustrazioko Eva Toldrá Ilustrazio Sarietan kategoria orokorreko lehenengo saria jaso zuen eta Junceda Sarietako etorkizuneko sortzaileen kategoriako finalista izan zen 2018an.

Ilustrazioaren inguruan, hitzaldi eta tailerrak eskaintzeaz gain, Garayoa etengabe ari da bere burua prestatzen ikastaro eta topaketetan parte hartzen. Besteak beste, Galtzagorri elkarteak antolatzen dituen Biko-Teka liburu grafikoetarako ilustrazio eta narraziogintza tailerlean zein MarraziOak Ilustratzaileen Topaketetan parte hartu izan du.

Olio-pastelak, argizariak, koloretako arkatzak eta grafitoa erabiltzen du bere marrazkietan, eta emaitza trazu espresibo eta sendoak, forma organikoak eta koloretako orbanak dituen lana da. Bozetoak egitea saihesten du eta alde zuzenetik gehiegi pentsatu gabe marraztea gustatzen zaio, ilustrazio espontaneoagoak eta zuzenagoak lortzeko.

WEBGUNE ETA SARE SOZIALAK:

MAZOKArako egindako elkarrizketa:

<https://www.youtube.com/watch?v=gvl36KfIE8o>

EITB KULTURA telebistako saioan egin zioten elkarrizketa:

<https://www.eitb.eus/es/television/programas/eitb-kultura/sortzaileak/videos/detalle/7727180/video-las-ilustraciones-sandra-garayoa/>

Webgunea:

<https://sandragarayoa.com/>

Instagram:

<https://www.instagram.com/sandragarayoa/>